**Kultur Zerbitzua**
Atarrabiako Udala
**Servicio de Cultura**
Ayuntamiento de Villava



# Memoria 2002 Txostena

AYUNTAMIENTO DE VILLAVA
ATARRABIAKO UDALA
SERVICIO DE CULTURA
KULTURA ZERBITZUA

Presentación Aurkezpena

## Presentación

Tenéis en vuestras manos la memoria de acciones desarrolladas el año pasado por el Servicio de Cultura del Ayuntamiento de Villava.

Son fruto de un diseño concreto, que pretende combinar el fortalecimiento e impulso de las diferentes entidades artísticas y culturales que trabajan en nuestra localidad, ya sea en el campo de la música, la acción sociocultural, la danza, etc., con una oferta externa de calidad que sea diferente de lo "oficialmente establecido".

Seguimos por tanto avanzando por la senda iniciada en el año 2000. Con dificultades, debidas no sólo a lo exiguo de nuestro presupuesto, sino también a la falta de una política cultural coincidente con la de las instancias superiores, sean éstas políticas o económicas. Hemos intentado suplir ese déficit con imaginación y esfuerzo.

Seguimos apostando por la diversidad en nuestra oferta de difusión cultural, sin olvidar la creación, la formación y la promoción de la localidad, y tampoco nos hemos olvidado de los momentos de diversión.

Este programa de iniciativas socioculturales abarca desde las dirigidas al sector infantil (talleres, campañas de teatro escolar, de animación a la lectura, conciertos didácticos, cine, etc.), al juvenil (cursos de ocio, conciertos de Hamlet, Sen, Hirurko, El Chojín, El Meswy, ciclos de teatro, etc.), o al adulto con los conciertos de Chucho y Bebo Valdés, Compay Segundo, y las dos actuaciones de La Fura dels Baus, con un gran éxito de público y crítica. Mención especial merecen las actuaciones de grupos locales como Izeia o Zorongo, y la producción propia del espectáculo para celebrar el XXV Aniversario de nuestros Gigantes.

También debemos destacar la consolidación del Certamen Literario Pedro de Atarrabia con una más que notoria participación en sus modalidades de castellano y euskera. La presencia este año de la totalidad de su prestigioso jurado (Rosa Regàs, Fernando Marías, Juan Gartzia, Felipe Juaristi, y José María Romera), le ha dado una mayor repercusión social.

Queda para la próxima legislatura el mayor reto: conseguir el Centro Cultural que nuestra villa necesita y se merece.

A través de esta memoria pretendemos hacerles partícipes de nuestro compromiso con el desarrollo socio-cultural de Villava-Atarrabia. A esa misión hemos dedicado lo mejor de nuestro esfuerzo y trabajo.

Para finalizar, mostrar el agradecimiento del Servicio de Cultura a las personas que han colaborado, y a las que con su presencia en los diferentes actos organizados han hecho posible su éxito.

**José Luis Úriz Iglesias**
Concejal Delegado de Cultura

## Aurkezpena

Eskuartean duzue Atarrabiako Udaleko Kultura Zerbitzuak iaz egindako ekitaldien memoria.

Ekitaldiok diseinu konkretu baten ondorio dira. Diseinu honek, gure herrian musika zein dantza arloan, arlo soziokulturalean eta abarretan lanean diharduten erakunde artistiko eta kultural ezberdinen indartzea eta bultzada, eta "ofizialki ezarria" dagoenaren ezberdina izango den kanpoko eskaintza kalitatezkoa uztartu nahi ditu.

Hortaz, 2000. urtean abiarazitako bideari jarraitzen diogu. Zailtasunik ez da falta, ez dugun aurrekontua urriaren ingurukoak bakarrik, gure politika kulturala, gainetik ditugun indar politiko zein ekonomikoenarekin bat ez datorrelako baizik. Gabezia hauek irudimena eta kemenarekin gainditzen saiatu gara.

Aniztasunaren aldeko apustuarekin jarraitzen dugu kultur zabalkundearen arloan, sormena, prestakuntza eta herriaren sustapena alde batera utzi gabe. Ez ditugu ahantzi ere dibertimendurako momentuak.

Ekimen soziokultural hauek osatzen duten egitaraua adin guztietako herritarrei zuzendua dago: haurrak (tailerrak, eskola-antzerkiaren eta irakurketa sustatzeko kanpainak, kontzertu didaktikoak, zinea, etab.), gazteak (aisialdi ikastaroak, Hamlet, Sen, Hirurko, El Chojin, El Meswy taldeen kontzertuak, antzerki zikloak, etab.) eta helduak (ikusleen eta kritikaren artean sekulako arrakasta lortu zuten Chucho eta Bebo Valdesen eta Compay Segundoren kontzertuak eta La Fura dels Baus taldearen bi emanaldiak). Aipamen berezia merezi dute Izeia eta Zorongo herriko taldeek prestaturiko ikuskizunek eta bertako taldeek ere, gure Erraldoien XXV. Urteurrena ospatzeko gauzatu zuten ikuskizunak.

Aipatzekoa da, halaber, Petri Atarrabiako Literatur Sariketaren finkapena. Izan ere, gazteleraz zein euskararaz partehartze handia izan du. Aurten, epaimahaia osatzen duten ospe handiko mahaikide guztiak bildu dira (Rosa Regàs, Fernando Marías, Juan Gartzia, Felipe Juaristi eta Jose Mª Romera). Gertaera honek zabalkunde handiagoa eman dio gizarte mailan.

Hurrengo legealdirako gure erronkarik nagusiena geratzen da: gure herriak behar eta merezi duen Kultur Zentroa.

Memoria honen bidez Atarrabiaren garapen soziokulturalarekiko gure konpromisoaren partaide egin nahi zaituztegu. Helburu horretara zuzendu da gure ahalegina eta lana.

Amaitzeko, gure eskerrona azaldu nahi diegu Kultura Zerbitzutik, lagundu duten guztiei eta ekitaldi ezberdinak arrakastatsuak izan daitezen bertaratu diren guztiei.

**José Luis Úriz Iglesias**
Kultura Zinegotzi Delegatua



Áreas. Arloak

Difusión cultural
Ikuskizun handia

Creación cultural
Kultur sormena

Formación y promoción de la localidad
Prestakuntza eta sustapena herri mailan

Recreación / fiestas
Lakatzea / jaiak

Gestión Casa de Cultura
Kultur Etxearen kudeaketa

# Difusión cultural. Kultur zabalkundea

## Grandes espectaculos

El programa de grandes espectáculos, novedad en 2001, se ha ido consolidando a lo largo del año 2002. El 18 de marzo tuvo lugar el concierto de Chucho Valdés, acompañado de su padre, el mítico Bebo Valdés. Compay Segundo actuó el 12 de Mayo. La Fura dels Baus estrenó su último montaje "XXX", los días 22 y 23 de Junio. Los espectáculos tuvieron lugar en el Polideportivo Hermanos Indurain con un gran éxito de público y una amplia repercusión en la prensa regional.

## Ikuskizun handiak

Ikuskizun handiei eskainitako egitaraua, 2001eko berrikuntza, sustraitzen joan da 2002an. Martxoaren 18an Chucho Valdés izan zen kontzertuan, bere aita Bebo Valdés mitikoa lagun zuela. Compay Segundo handiak maiatzaren 12an jo zuen. La Fura dels Baus taldeak bere azken lana estreinatu zuen ekainaren 22 eta 23an. Indurain Anaiak Kiroldegian izan ziren kontzertuetara zein ikuskizunetara jendea erruz joan zen eta oihartzun handia izan zuten bertako hedabideetan.


Chucho Valdés.


La Fura dels Baus.

Espectáculos: 4. Asistentes: 5.600
Ikuskizunak: 4. Ikusleak: 5.600

## Artes plasticas

Este año se han programado diecisiete exposiciones de fotografía y pintura. Entre las exposiciones de fotografía destacaron las de Olga Izko, Periko Zunzarren y José Ignacio Oskoz. Entre las de pintura, la de Milagros Gay, que nos permitió apreciar su evolución. Durante los meses de mayo y junio tuvieron lugar las exposiciones de fin de curso de los talleres infantiles de expresión plástica y pintura y de los cursos de ocio de pintura y fotografía de la Casa de Cultura. En noviembre se inauguró la muestra que José Mª Ballesta preparó con motivo del XXV Aniversario de los Gigantes de Villava

## Arte plastikoak

Aurten argazkigintza eta margolaritza arloetako hamazazpi erakusketa antolatu dira. Argazkigintzan honako hauek azpimarratu behar: Olga Izko, Periko Zunzarren eta Jose Ignacio Oskozenak. Margolaritzan berriz Milagros Gayrena nabarmendu behar. Erakusketa honen bidez egilearen bilakaeraz jabetzeko aukera izan genuen. Maiatzean eta ekainean zehar haurrentzako plastika eta margolaritza tailerren eta gazte eta helduentzako margolaritza eta argazkigintza tailerren ikasturte amaierako erakusketak izan ziren.


José Ignacio Oskoz.


Olga Izko.

Exposiciones: 17. Visitantes: 5.950
Erakusketak: 17. Ikusleak: 5.950

## Cine

La programación de cine al aire libre del mes de agosto es la actividad que más interés despierta, con un promedio de 700 espectadores por sesión. Los lunes estuvieron dedicados al público infantil, los jueves a l@s adultos y los domingos a l@s jóvenes. En total fueron 13 las proyecciones realizadas. El cine infantil por Navidad en el frontón Atarrabia contó con un calefactor, adquirido por el Servicio de Cultura, que suavizó las frías temperaturas de esta época. Novedades de este año fueron: un taller infantil en el que durante las vacaciones de Semana Santa se rodó una película y un ciclo de audiovisuales sobre naturaleza y montaña ofrecido por Fernando Pla durante los viernes de septiembre.

## Zinea

Abuztuan zehar aire librean egiten diren proiekzioek osatzen duten egitaraua da aktibitaterik arrakastatsuena. Bataz beste 700 ikusle izaten dira saioko. Astelehenak haurrentzat izan ziren, ostegunak helduentzat eta ostiralak gazteentzat. Osotara 13 emanaldi izan ziren. Eguberrietako zine emanaldietarako Kultura Zerbitzuak erositako berogailu bat paratu zen Atarrabia pilotalekuan eta giroa dezente epeldu zen. Aurtengo berrikuntzak izan ziren Aste Santutan egin zen tailerraren baitan errodatu zen filma eta irail eko ostiraletan Fernando Plak ikusgai jarri zuen naturari eta mendiari buruzko ikus-entzunezko zikloa.


El Señor de los anillos.


Hable con ella.

Proyecciones: 21. Espectadores: 10.770
Proiekzioak: 21. Ikusleak: 10.770

## Visitas culturales

Este año en lugar de organizar dos visitas culturales de un día se optó por realizar un viaje a Salamanca y Ciudad Rodrigo que tuvo lugar los días 6, 7 y 8 de septiembre. 52 personas disfrutaron visitando la Universidad, Catedral, Plaza Mayor, Clerecía, Museo de Art Decó, etc.

## Kultur bidaiak

Aurtengoan egun bateko bi kultur bidaia egin beharrean, hiru eguneko bidaia (irailak 6, 7 eta 8) egin genuen Salamanca eta Ciudad Rodrigora. 52 lagun bildu ziren eta ederki gozatu zuten, besteak beste, honako tokiak bisitatuta: Unibertsitatea, Katedrala, Plaza Nagusia, Clerecia, Art Decó Museoa, e.a.


Viaje a Salamanca.

Excursiones: 1. Asistentes: 52
Irteerak: 1. Partehartzaileak 52

# Difusión cultural. Kultur zabalkundea

## Música

Junto a la ya tradicional oferta de música clásica (Conciertos Sacros, Fiestas, San Andrés y Navidad) debemos destacar por su éxito de público joven los conciertos del ciclo Ritmos 2002 del mes de junio (Hirurko, Zirikatu, Sen, Kaotiko y Hamlet) y el concierto de Hip-Hop del 21 de septiembre (El Chojin y El Meswy). Mención aparte merecen los conciertos que los alumnos de la Escuela de Música Hilarión Eslava han ido ofreciendo (concierto escolar, Santa Cecilia y Navidad). Novedad del año fue la concentración de Fanfarres que tuvo lugar el domingo 19 de mayo y que reunió a más de 80 músicos de las fanfarres Ardanbera, Muthiko Alaiak, Tirikitrauki, Zangitu, Bizkargain, Leizea, Sendategi y Burgantzi.

## Musika

Musika klasikoari buruzko ohiko eskaintzarekin batera (Sakroa, Udaberriko Zikloa, Jaiak, San Andres eta Gabonak), aurten, bere kalitateagatik eta izandako arrakastagatik, gazteei zuzendutako programazioa azpimarratu behar dugu: ekaineko Ritmos 2002 izeneko emanaldiak (Hirurko, Zirikatu, Sen, Kaotiko eta Hamlet) eta irailaren 21eko Hip-Hop emanaldia hain zuzen ere (El Chojin eta El Mewsky). Aparteko aipamena merezi dute Hilarión Eslava Musika Eskolako ikasleek urtean zehar eman dituzten kontzertuek (eskola kontzertua, Santa Zezilia, eta Gabonak). Aurtengo berrikuntza Fanfarreen Topaketa izan da. Maiatzaren 19an hainbat taldetako 80 musikari bildu zen: Ardanbera, Muthiko Alaiak, Tirikitrauki, Zangitu, Bizkargain, Leizea, Sendategi eta Burgantzi.



Hamlet.

Conciertos: 14. Asistentes: 7.200

Kontzertuak: 14. Ikusleak: 7.200



Sesión de Hip-Hop

## Literatura

Unos 390 alumn@s y profesores de los colegios Lorenzo Goicoa y La Presentación participaron durante el curso 2001/02 en la IX Campaña de Animación a la Lectura de la Comarca, gestionada por la entidad FIRA. La campaña consistió en cuatro sesiones de narración oral, seis encuentros entre autor y lectores y dos sesiones de orientación con el profesorado. La campaña se completó con la edición del nº 5 del boletín CALCO.

En el mes de abril tuvo lugar la VIII Semana de Animación a la Lectura, que ofreció sesiones de cuenta cuentos, títeres y marionetas, al tiempo que se entregaron los premios del XII Concurso de Narrativa Infantil Pedro de Atarrabia. Durante los meses de julio y agosto, como todos los años, se trasladó la Biblioteca pública a las Piscinas Municipales. Este año también tuvimos un encuentro con Rosa Regàs el 4 de noviembre.

## Literatura

Lorenzo Goikoa eta La Presentación ikastetxeetako 390 ikasle-irakaslek FIRA erakundeak antolatzen duen Iruñerri mailako Irakurketa sustatzeko IX. Astean parte hartu zuten 2001-2002 ikasturtean. Honetan, ahozko kontakizunen lau saio, egileen eta irakurleen arteko sei topaketa eta irakasleentzako bi saio izan ziren. Kanpainari amaiera emateko CALCO buletinaren 5. zenbakia argitaratu zen.

Apirilean Irakurketa Sustatzeko VIII. Astea egin zen. Honetan ipuin kontalariak, txotxongiloak, antzerkia izan genituen. Halaber Petri Atarrabiako Haurrentzako Sariketaren XII. edizioko sariak eman ziren. Urtero bezala, uztailean eta abuztuan, Liburutegi Publikoa Udal Igerilekuetara eraman genuen. Aurten ere, Rosa Regàsekin solasaldia izan genuen azaroaren 4an.





Calco.



Encuentro con Rosa Regàs el 4 de noviembre.

Acciones: 17. Participantes: 1.665

Ekintzak: 17. Partehartzaileak: 1.665

## Artes escénicas

A pesar de no contar la localidad con un espacio escénico, la oferta teatral ha sido importante a lo largo del año. Se han ofrecido dos ciclos de teatro en sala: II Muestra de Teatro de Aquí (T'ombligo, Iluna, Alex Pastor, Zarrapastra, Julio Pajares) y el VII ciclo de Teatro de Otoño (Muac, Belladona, Joel Angelino) y una abundante oferta destinada al público infantil: XI campaña de teatro escolar (Panta Rhei), animación por Carnavales (PAI), teatro de marionetas en verano (Arbolé) y Navidad (TEN-Pinpilinpauxa). Novedad destacada del año fue el estreno el 18 de mayo del espectáculo de danza y música del grupo local Izeia. Las coreografías, el vestuario y la música fueron creados por los componentes del grupo.

## Arte eszenikoak

Toki egokirik ez izan arren, antzerkiaz gozatzeko aukera oso garrantzitsua izan da aurten ere. Barruan egiteko bi antzerki ziklo egin dira: bertako Antzerkiaren II. Zikloa (T'Ombligo, Iluna, Alex Pastor, Zarrapastra, Julio Pajares) eta Udazkeneko VII. Antzerki Zikloa (Muac, Belladona, Joel Angelino) eta haurrentzako antzerki eskaintza ere ugaria izan da. (Eskola Antzerkia -Pantha Rei-, kale animazioa Inauterietan –PAI-, txotxongiloak udan –Arbolé- eta Eguberrietan –TEN-Pinpilinpauxa-). Berrikuntza aipagarria Izeia herriko taldearen lanaren estreinaldia, dantza eta musika, izan zen. Ikuskizuna maiatzaren 18an taularatu zuten eta koreografia, jantziak eta musika taldekideek sortu zuten.



Izeia.



L´Home Dibuixat.

Espectáculos: 23. Espectadores: 4.540

Ikuskizunak: 23. Ikusleak: 4.540

# Creación cultural. Kultur sormena

## Convenios con entidades artísticas

Los convenios que el Servicio de Cultura firma con las Entidades Artísticas de la localidad, tienen un carácter de ayuda-subvención y constituyen una medida de apoyo a las entidades artísticas estables. En 2002 se firmaron convenios con trece entidades: Coral San Andrés, Comparsa de Gigantes, Comparsa de Kilikis, Txaranga Zintzarri, Acordeones Jaialdi, Gaiteros, Txistularis, Mikelats, Zanpantzar, Gas Taldea y grupos de danzas txikis de Idoskia, La Presentación y Paz de Ziganda. Se patrocinaron 47 actuaciones en diferentes momentos del año (Cabalgata de Reyes, Carnavales, Semana Santa, Día del Centro Hilarión Eslava, Noche de San Juan, Atarrabiako Eguna, Fiestas Patronales, San Andrés y Olentzero). En 2002 se incrementó en un 6% la partida presupuetaria, repartiéndose 19.112 euros entre las entidades artísticas y musicales de la localidad.

## Hitzarmenak erakunde artistikoekin

Kultur Zerbitzuak herriko Erakunde Artistikoekin sinatzen dituen hitzarmenak laguntza-subentzio moduko bat izan daitezen nahi da eta erakunde artistiko iraunkorrei laguntzeko neurria dira. Aurten hamahiru erakunderekin sinatu dira hitzarmenak: San Andres Abesbatza, Erraldoien Konpartsa, Kilikien Konpartsa, Zintzarri Txaranga, Jaialdi Akordeoiak, Gaitariak, Txistulariak, Mikelats, Zanpantzar, Gas Taldea eta Idoskia, La Presentación eta Paz de Ziganda Dantza Talde txikiak. Bestalde erakunde hauek urtean zehar egindako 47 emanaldi diruz babestu dira: (Erregeen Kabalgata, Inauteriak, Hilarion Eslava Musika Eskolaren Eguna, San Joan Gaua, Atarrabiako Eguna, Herriko Jaiak, San Andres Eguna eta Olentzero). 2002an honetarako kontu-sailak %6 egin du gora eta orotara 19.112 euro banatu dira.



Coral San Andrés.

**Evolución del importe asignado en los últimos cinco años a convenios**

**Hitzarmenengatiko diru-kopuruaren bilakaera**




## XIV Certamen Literario Pedro de Atarrabia

Este año hemos conseguido consolidar el prestigio que el Certamen Literario Pedro de Atarrabia ha alcanzado, a través de las novedades introducidas en el 2001: aumento de la cuantía económica de los premios (1.700 euros para cada una de las modalidades –castellano, euskera-), presencia de un jurado de reconocido prestigio literario (Rosa Regàs, Fernando Marías, Felipe Juaristi, Juan Garzia y José Mª Romera) y una difusión internacional del mismo. Este año la participación ha sido destacada: 538 en la modalidad de castellano y 17 en la de euskera. El premio en la modalidad de castellano fue para Alberto Fernández González y en la de euskera para Peio Uharte Orotz.

## Petri atarrabiako XIV. Literatur sariketa

Aurtengoan Petri Atarrabiako Literatur Sariketak lortutako ospeari eustea lortu dugu, iazko urtean sartutako berrikuntzen bidez: sarien kopurua handiagotzea (1.700 euro modalitateko –gaztelera eta euskara-), literatur munduan ospe handiko izenez osatutako epaimahaiak (Rosa Regàs, Fernando Marías, Felipe Juaristi, Juan Garzia eta Jose Mª Romera) eta sariaren nazioarte mailan egindako zabalkundea. Aurtengo partehartzea nabarmentzekoa izan da oso: 538 gazteleraz eta 17 euskaraz. Sarituak Alberto Fernández González eta Peio Uharte Orotz izan ziren, gazteleraz eta euskaraz urrenez urren..



Jurado del XIV Certamen Pedro de Atarrabia.

Relatos presentados: 555

Aurkeztutako lanak: 555

## XIII concurso de Narrativa Infantil Pedro de Atarrabia

Un año más la participación de nuestros escolares en el Certamen Narrativo fue importante. Se presentaron un total de 164 relatos: 65 en euskera y 99 en castellano. En la modalidad de castellano, en la categoría III Ciclo de Primaria, el primer premio fue para Itsaso Florez Aldaz, del colegio Lorenzo Goicoa, mientras que el segundo premio fue para Amaia López Pascual, también del colegio Lorenzo Goicoa. Por su parte, en la categoría 1º y 2º de E.S.O., el primer premio fue para Amaia Mendioroz Unzu, del colegio La Presentación, y el segundo premio para Haizea García Fernández, del Instituto Askatasuna. En la modalidad de euskera, en la categoría III Ciclo de Primaria, el primer premio fue para Julen Crespo Arozena, del colegio Lorenzo Goicoa, mientras que el segundo fue para Iosu Irujo, de la Ikastola Paz de Ziganda. Finalmente, en la categoría de 1º y 2º de E.S.O., el primer premio fue para Igor Iroz Asin, de la Ikastola Paz de Ziganda, y el segundo para Maitane Goikoetxandia Aizpurua, del Instituto Askatasuna.

## Haurrentzako XIII. Literatur sariketa

Beste urte batez, gure ikasleen partehartzea zabala izan zen. 164 lan aurkeztu ziren: 65 euskaraz eta 99 gazteleraz. Gazteleraz eta Lehen Hezkuntzako III. Zikloan Lorenzo Goikoako Itsaso Florez Aldazek irabazi zuen lehen saria eta Amaia López Pascualek bigarrena, Lorenzo Goikoa hau ere. DBHko 1. eta 2. mailan berriz, La Presentación Ikastetxeko Amaia Mendioroz Unzuk irabazi zuen lehen saria, eta Askatasuna Institutuko Haizea García Fernandezek bigarrena. Euskarazko modalitatean eta Lehen Hezkuntzako III. Zikloan Julen



Ganadores del certamen literario infantil Pedro de Atarrabia en sus distintas modalidades.

Trabajos presentados: 164

Aurkeztutako lanak: 164

# Creación cultural. Kultur sormena

Crespo Arozena, Lorenzo Goikoakoa irabazi zuen lehen saria eta Iosu Irujo Paz de Zigandakoa geratu zen bigarren. Azkenik, DBHko 1. eta 2. mailan Igor Iroz Asin izan zen irabazlea, Paz de Zigandakoa, eta bigarren tokia Askatasuna Institutuko Maitane Goikoetxandia Aispuruak eskuratu zuen.

## VII Certamen de Fotografía Besta-Jira

El Certamen de Fotografía también ha tenido en su VII edición un importante incremento de participación al haberse abierto el año pasado a fotógrafos de otras localidades. El jurado como viene siendo habitual, ha estado compuesto por Paco Ocaña, Adolfo Lacunza, José Mª Ballesta y Juantxo Oskoz. Se presentaron un total de 104 fotografías: 43 en blanco y negro y 61 en color. En la modalidad de blanco y negro el primer premio (300 euros) fue para José María Mellado, y el segundo premio (150 euros) para Alberto Mikelez. En color el primer premio (300 euros) fue para Mikel Cepeda y el segundo (150 euros) para Iñaki Vergara.

## Besta-jira VII. Argazki lehiaketa

Argazki Lehiaketan ere partehartze handiagoa izan da VII. edizio honetan, beste herrietako argazkilarientzako ireki baita. Ohikoa den moduan epaimahaia ondokoek osatzen zuten: Paco Ocañak, Adolfo Lacunzak, José Mª Ballestak eta Juantxo Oskozek. 104 argazki aurkeztu ziren: 43 zuri-beltzean eta 61 koloretan. Zuri-beltzean 300 eurotako lehen saria Jose Mª Melladok irabazi zuen eta 150 eurotako bigarrena Alberto Mikelezek. Koloretan, berriz, Mikel Cepedak irabazi zuen (300 euro) eta Iñaki Vergara geratu zen bigarren tokian (150 euro).



Entrega de premios de fotografía Besta Jira.

Fotografías presentadas: 104
Aurkeztutako argazkiak: 104

## II Certamen de Grafitti

El 21 de septiembre tuvo lugar el II Certamen de Grafitti en los muros del Paseo de los Frutales. Alrededor de 120 grafiteros realizaron más de 30 murales en los estilos FX, WILD STILE y BASURA.
Desde el Servicio de Cultura se está apoyando la realización por parte del colectivo Magnaticks de murales en diferentes muros de la localidad. Asimismo, se organizó desde la Casa de Cultura un taller de murales infantiles durante el mes de agosto.

## Grafitti I. Lehiaketa

Iragan irailaren 21ean, Fruta-arbolen Pasealekuaren hormetan, Graffiti II. Lehiaketa egin zen. Bertan 120 graffiti zalek 30 horma irudi baino gehiago margotu zituzten, FX, WILD STILE eta ZARAMA eratakoak.

Kultura Zerbitzutik, Magnaticks taldeak etxabetako hormetan horma irudiak egin ditzan sustatzen ari da. Halaber, abuztuan zehar, haurrentzako horma irudien tailerra antolatu zen.



Una de las obras realizadas en el Certamen de Grafitti.

Murales realizados: Más de 30
Egindako horma Irudiak: 30 baino gehiago

## Adquisición de obra artística

Desde hace cinco años el Servicio de Cultura viene adquiriendo obra de los artistas que durante el año exponen en la Casa de Cultura con el objetivo de crear una modesta colección municipal. Este año se ha adquirido un lienzo de Milagros Gay. El Ayuntamiento posee 18 obras en propiedad, fundamentalmente de pintores de la localidad.

## Artelanen erostea

Bost urtetik hona Kultura Zerbitzuak Kultur Etxean beren lanak erakusten dituzten artisten lanak erosten dihardu. Honen helburua da udal bilduma xume bat osatzea. Aurten Milagros Gayren mihise bat erosi da. Udalak 18 lan ditu jabegoan, gehienak herriko margolarienak.



Obra de Milagros Gay adquirida por el Ayuntamiento de Villava.

# Formación-promoción de la localidad. Prestakuntza eta sustapena herri mailan

## Talleres infantiles




Durante el curso 2001-2002 un total de 129 niños y niñas han tomado parte en el desarrollo de los talleres infantiles de expresión plástica, pintura y danzas. El total de horas impartidas fueron de 228. Los talleres se presentan como un espacio de relación y creatividad que fomenta la socialización y el potencial artístico del niñ@.

## Haurrentzako tailerrak

2001-2002 ikasturtean zehar 129 neska-mutikok hartu du parte haurrentzako tailerretan (adierazpen plastikoa, margolaritza eta dantzak). Osotara 228 ordu izan ziren. Tailer hauek haurren arteko elkarbizitza eta potentzial artistikoa areagotzen duten harreman eta sormen guneak dira.

Participantes: 129. Total horas: 228

Partehartzaileak: 129. Orduak osotara: 228

| Taller<br>Tailerra | Grupos<br>Taldeak | Matrícula<br>Matrikula | Horas<br>Orduak |
|---|---|---|---|
| Exp. Plástica (castellano)<br>Adi. Plastikoa (gaztelera) | 1 | 15 | 23 |
| Exp. Plástica (euskera)<br>Adi. Plastikoa (euskara) | 1 | 15 | 23 |
| Pintura (castellano). Margolaritza (gaztelera) | 1 | 16 | 26 |
| Pintura (euskera). Margolaritza (euskara) | 1 | 15 | 24 |
| Danzas (euskera). Dantzak (euskara) | 4 | 68 | 132 |

## Cursos para un ocio creativo




La oferta de cursos para un ocio creativo va ganando en variedad, posibilitando a jóvenes y adultos un acercamiento a diferentes disciplinas artísticas y lúdicas. El curso 2001-2002 fueron 194 personas las que participaron en los 13 cursos que se programaron. El total de horas lectivas fue de 492.

## Aisialdi sortzailerako ikastaroak

Aisialdi sortzailerako ikastaroen eskaintza zabaltzen ari da. Honela gazte eta helduei jarduera artistiko eta jokozko ezberdinetara hurbiltzeko aukera ematen zaie. 2001-2002 ikasturtean 194 lagunek parte hartu zuten programaturiko 13 ikastaroetan. Osotara 492 ordu izan ziren.

Participantes: 194. Total horas: 492

Partehartzaileak: 194. Orduak osotara: 492

| Taller<br>Tailerra | Grupos<br>Taldeak | Matrícula<br>Matrikula | Horas<br>Orduak |
|---|---|---|---|
| Informática. Informatika | 2 | 28 | 80 |
| Bailes de salón. Aretoko dantzak | 1 | 24 | 37,5 |
| Danza (latino, hip-hop, disco).<br>Dantza (latino, hip-hop, disco) | 2 | 41 | 78 |
| Iniciación al teatro. Antzerkia (hastapena) | 1 | 18 | 52 |
| Fotografía (nivel 1). Argazkigintza (1. maila) | 2 | 25 | 75 |
| Fotografía (nivel 2). Argazkigintza (2. maila) | 1 | 10 | 39 |
| Pintura Oleo. Margolaritza (Olioa) | 2 | 32 | 96 |
| Historia del arte. Artearen Historia | 1 | 16 | 34,5 |

## Cursos de educación de personas adultas

El Servicio de Cultura viene apoyando los cursos de Educación de Personas Adultas que realiza el Departamento de Educación del Gobierno de Navarra. En el curso 2001-2002 siete personas de nuestra localidad asistieron a cursos de formación personal, formación reglada y clases de castellano para extranjeros.

## Helduentzako hezkuntza ikastaroak

Kultura Zerbitzuak bultzatzen dihardu Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak antolatzen dituen Helduen Hezkuntza Ikastaroak. 2001-2002 ikasturtean gure herriko zazpi lagunek hainbat ikastarotan hartu zuten parte: heziketa pertsonala, hezkuntza arautua, gaztelera atzerritarrentzat, e.a.

## Subvenciones a entidades y asociaciones

Con el objetivo de apoyar económicamente las actividades que realizan nuestras entidades y colectivos, el Servicio de Cultura concede anualmente subvenciones a las Entidades Culturales, a las Asociaciones de Padres y Madres de los Centros Escolares y al Club de Jubilados San Andrés. Este año 2002 la asignación económica ha tenido un incremento del 6% en relación a la del año pasado. Las entidades culturales objeto de subvención durante el año 2002 han sido: Asociación Irati (3.001 euros), Sociedad Etxe-Beltza (2.305 euros), Asociación de Belenistas San Andrés (721 euros), Mikelats (914 euros) y Gaizpegi (1.206 euros). Por su parte, las Asociaciones de Padres y Madres que han recibido subvención, han sido: la APYMA de Lorenzo Goicoa I (1.339 euros), Idoskia (1.304 euros), la APYMA del Colegio La Presentación (1.639 euros) y la APYMA del Instituto Ibaialde (714 euros). Por su parte el Club de Jubilados San Andrés ha recibido 5.199 euros.

## Dirulaguntzak erakunde eta taldeei

Herriko erakunde eta elkarteek burutzen dituzten aktibitateak diruz laguntzeko xedearekin, Kultura Zerbitzuak dirulaguntzak ematen dizkie urtero Kultur Erakundeei, Ikastetxeetako Aita-Amen Elkarteei eta San Andres Jubilatuen Elkarteari. Aurtengoan diru-kopuru honek %6 egin du gora. 2002. urtean dirulaguntza jaso duten erakundeak ondokoak izan dira: Irati Elkartea (3.001 euros), Etxe Beltza Elkartea (2.305 euros), San Andres Jaiotza zaleen Elkartea (701 euros), Mikelats (914 euros) eta Gaizpegi Elkartea (1.206 euros). Bestalde, segidako guraso elkarteek ere, dirulaguntza jaso dute: Lorenzo Goiko I Ikastetxeko Guraso Elkartea (1.339 euros), Idoskia (1.304 euros), La Presentación Ikastetxeko Guraso Elkartea (1.639 euros) eta Ibaialde Institutuko Guraso Elkartea (714 euros). Bestalde Jubilatuen Elkarteak 5.199 euros pezeta jaso zituen.

**Evolucion del importe total de las subvenciones**

**Dirulaguntzen osotarako kopuruaren bilakaera**






Carnavales de 2002.



Charla el Día de la Mujer.

# Formación-promoción de la localidad. Prestakuntza eta sustapena herri mailan

## Patrocinios

El Atarrabiako Eguna organizado por la Sociedad Etxe-Beltza merece una actuación especial. El Servicio de Cultura viene apoyando sus diferentes ediciones, tanto con aportaciones económicas (6.115 euros en 2002) como con el apoyo logístico que se solicita.
Otros patrocinios realizados por el Servicio de Cultura han sido:

- II Torneo Escolar de Ajedrez de la Sociedad Gaizpegi con 721 euros.
- X Festival de Villancicos de la Asociación de Belenistas con 782 euros.

## Babeseak

Etxe Beltzak antolatzen duen Atarrabiako Egunak jarduketa berezia merezi du. Kultura Zerbitzuak edizio ezberdinak laguntzen dihardu, bai dirulaguntzekin (6.115 euro 2002. urtean), baita eskatutako laguntza logistikoa ematen ere.
Kultura Zerbitzuak diruz babestutako ekintzak dira:

- Gaizpegi Elkartearen Eskola Mailako II Xake Lehiaketa (721 euro).
- Jaiotza zaleek antolaturiko Gabon Kanta Jaialdia (782 euro).



Atarrabiako Eguna.



Ganadores del torneo de Ajedrez.

Patrocinios: 3

Babeseak: 3

## Colección de Temas Villaveses

Con la finalidad de difundir diferentes aspectos (históricos, culturales, artísticos y folclóricos) de nuestra villa se creó el año pasado la colección de temas villaveses. Este año se han editado 1.000 ejemplares del segundo número de la colección "Rafael Sánchez Guerra, un republicano en Villava", cuyo autor es Luis Carlos Rueda. El libro se viene entregando a quienes lo solicitan de forma gratuita en la Casa de Cultura.

## Atarrabiako gaien bilduma

Gure herriko hainbat alderdi zabaltzeko asmoz (historia, kultura, artea, folklorea) "Atarrabiako Gaien Bilduma" sortu zen iaz. Aurten bigarren alearen 1.000 ale argitaratu dira. Honen izenburua "Rafael Sánchez Guerra: errepublikar bat Atarrabian" da eta Luis Carlos Ruedak taiutu du. lan hau edonork eskura dezake, doan, Kultur Etxean eskatuz gero.








Portada y presentación del libro. A la izquierda, recepción ofrecida a una delegación del Real Madrid, representado por Ignacio Zoco, al haber sido Sánchez Guerra presidente del club en los años treinta.

## XXV aniversario Comparsa de Gigantes

Este año hemos conmemorado 25 años de la existencia de la Comparsa de Gigantes. El programa de actos se desarrolló en la segunda quincena de noviembre y comenzó con una exposición fotográfica de José Mª Ballesta. El viernes 29 tuvo lugar en el Polideportivo Hermanos Indurain un espléndido espectáculo al que asistieron más de 1.000 personas, protagonizado por la Comparsa de Gigantes, el grupo de teatro Zarrapastra, el grupo musical Zorongo, la Comparsa de Kilikis, el grupo de Gaiteros y la Coral San Andrés. El espectáculo fue creado y dirigido por Paco Ocaña y la música fue creada por Ekhi Ocaña. El sábado 30, en el salón de plenos, el Ayuntamiento rindió público homenaje a la Comparsa de Gigantes en un acto cargado de emotividad, en el que el Servicio de Cultura quiso destacar la labor realizada en estos años por Mª Jesús Urra, Javier Asiain, Javier Zubieta, Javier Izal, Patxi Ibarrola y Antonio Urbiola, a los que se les hizo entrega de un escudo de la localidad.

## Erraldoien Konpartsaren XXV.

Aurten, Erraldoien Konpartsaren XXV. urteurrena ospatu dugu. Egitaraua azaroaren bigarren hamabostaldian gauzatu zen eta ospakizunari hasiera emateko Jose Mª Ballestaren argazki erakusketa bat egin zen. Hilaren 29an, ostiralez, Erraldoien Konpartsaren, Zarrapastra antzerkia taldearen, Zorongo musika taldearen, Kilikien konpartsaren Gaitarien eta San Andres Abesbatzaren artean gauzatutako ikuskizun ederra izan zuten ikusgai bertaratu ziren 1.000tik gora lagunek. Ikuskizunaren sortzaile eta zuzendaria Paco Ocaña izan zen eta Ekhi Ocañak ipini zion musika. Hilaren 30ean, larunbatez, Osoko Bilkuren Aretoan, Udalak jendaurreko omenaldia egin zion Erraldoien Konpartsari, ekitaldei hunkigarri baten baitan. Honetan, Kultura Zerbitzuak urteotan zehar, Mª Jesus Urrak, Javier Asiainek, Javier Zubietak, Javier Izalek, Patxi Ibarrolak eta Antonio Urbiolak egindako lana azpimarratu nahi izan zuen eta herriko armarri bana eman zien aipatutako hauei bakoitzari.





Homenaje a los gigantes en el polideportivo y en el Ayuntamiento.

## Recreación / fiestas. Lakatzea / jaiak

El 5 de enero pudimos disfrutar, un año más, de la **Cabalgata de Reyes,** que consolidó la presencia de los jinetes del Club Hípico de Labiano. Este año como novedad contamos con personajes de animación y un camión con juguetes.
El **Día del Arbol** previsto para el 2 de marzo tuvo que ser suspendido por el mal tiempo.
Este año no se celebró el **Día del Libro**, previsto para el sábado 27 de mayo, ante el boicot de la Asociación Navarra de Bibliotecarios a la política de bibliotecas del Gobierno de Navarra.
La **Noche de San Juán** (23 de junio) se celebró con un espectáculo de malabares con fuego a cargo del grupo local Atarrabiako Gas Taldea
La **Festividad de San Andrés** (30 de noviembre) volvió a traernos la animación musical a nuestras calles. A las 11 horas, en el salón de plenos, tuvo lugar un acto de homenaje a los empleados municipales jubilados en los últimos años. A las 13 horas se rindió homenaje a la Comparsa de Gigantes. A las 19 horas, también en el salón de plenos, tuvo lugar la entrega de los premios de los Certámenes de Literatura, Fotografías y la beca por la proyección pública de la localidad a la deportista Maite Gabarrús. El día terminó con un concierto del Coro Napardi.
Mención aparte merecen las **Fiestas Patronales**. El Servicio de Cultura ha sido, un año más, el encargado de coordinar el programa de actos. También, desde el Ayuntamiento, se ha apoyado económica y logísticamente otras actuaciones que organizan diferentes entidades de la localidad (Carnavales, Día de la Mujer, Olentzero, etc.).





Cabalgata de Reyes, Fiestas Patronales y San Andrés.

Urtarrilaren 5ean **Erregeen Kabalgataz** gozatzeko aukera izan genuen. Aurten ere Labianoko Hipika Elkarteko zaldikoak izan genituen. Aurten, eta berrikuntza gisa, animazioa eta jostailuz beteriko kamioia izan genituen.
**Arbolaren Eguna** martxoaren 2an ospatzekoa zena bertan behera geratu zen eguraldi txarragatik.
San Juan gauez (ekainak 23) Atarrabiako Gas Taldeak malabare suzkoen ikuskizun ederraz gozatzeko aukera eskaini zigun.
**San Andres Egunak** (azaroak 30) musika animazioa ekarri zigun berriro gure kaleetara.Goizeko 11:00etan, Osoko Bilkuren Aretoan, Udalak omenaldia egin zien azken urteotan erretiratutako udal langileei. 13:00etan, Udalak omenaldia egin zion Erraldoien Konpartsari. Arratsaldeko 7etan eta bilkura aretoan ere, Literatur, Argazkigintza eta Sormen Artistikoaren Sariak eta Herriaren izena zabaltzeagatiko beka (Maite Gabarrusi emana) eman ziren. Eguna amaitzeko Iruñeko Orfeoiaren emanaldia izan genuen.
**Herriko Jaiek** aipamen berezia merezi dute. Kultura Zerbitzua izan da, beste urte batez, ekitaldien egitarauaren koordinatzailea.
Halaber, Udalak hainbat erakundek antolatzen dituzten beste hainbat ekitaldiri ere, bere laguntza eskaini die, bai diruz, bai logistika mailan: Inauteriak, Emakumearen Eguna, Olentzero, e.a.

## Gestión Casa de Cultura. Kultur Etxearen kudeaketa

La Casa de Cultura nació en 1982 con el fin de contribuir a la promoción de la cultura en sus más variadas manifestaciones y de servir como cauce de participación y punto de referencia sociocultural para los ciudadanos/as de Villava.
La Casa de Cultura es el principal equipamiento sociocultural que tiene a su disposición el Servicio de Cultura del Ayuntamiento para desarrollar anualmente su programa de actividades.
En la Casa de Cultura están ubicados diferentes servicios: la administración y dirección técnica del Servicio de Cultura, la Biblioteca Pública y el servicio Infolan.
Además, la Casa de Cultura realiza una importante labor de promoción sociocultural facilitando el uso de sus salas y espacios a las diferentes asociaciones, entidades y colectivos de la localidad.
Los datos referentes al uso de salas de la Casa de Cultura, ponen de manifiesto la existencia de un amplio y activo tejido social en nuestra localidad.
A continuación reflejamos el número de veces que han sido utilizadas las salas de la Casa de Cultura a lo largo del año 2002, tanto de forma permanente como puntual por diferentes entidades y colectivos, así como por los propios servicios del Ayuntamiento.

Kultur Etxea 1982an sortu zen, kulturaren alderdi guztiak sustatzen laguntzeko helburuarekin. Halaber, parte hartze bide bat eta maila soziokulturalean erreferentzia gune izan nahi zuen Atarrabiako biztanleentzat.
Kultur Etxea Udaleko Kultura Zerbitzuak urteko jarduera aurrera eramateko duen ekipamendu garrantzitsuena da.
Kultur Etxean hainbat zerbitzu daude kokaturik: Kultura Zerbitzuaren administrazioa eta zuzendaritza teknikoa, Liburutegi Publikoa eta gazte-enpleguaren aldeko Infolan izeneko zerbitzua.
Zerbitzu hauek emateaz gain Kultur Etxeak sustapen lan handia egiten du maila soziokulturalean, herriko elkarte, erakunde eta taldeei bertako gelak eta guneak erabili ditzaten.
Kultur Etxeko gelen erabilpenari buruzko datuek agerian uzten dute gure herrian gizarte sare zabala eta bizi-bizia dagoela.
Jarraian Kultur Etxeko gelak, 2002. urtean zehar, herriko erakunde eta taldeek zein Udaleko gainontzeko zerbitzuek zenbatetan erabili dituzten azaltzen dugu, bai modu jarraian zein momentu puntualetan.

### ACTIVIDADES PUNTUALES. JARDUERA PUNTUALAK

| Tipo Entidad /Tipo Actividad<br>Erakunde Mota /Jarduera Mota | Asociaciones/Colectivos<br>Elkarteak/Taldeak | Comunidades vecinos<br>Auzokideen erkidegoak | Servicios Ayuntamiento<br>Udaleko Zerbitzuak | Otras entidades<br>Bestelako erakundeak | TOTAL<br>TOTAL |
|---|---|---|---|---|---|
| Reuniones / Conferencias. Bilerak / Hitzaldiak | 165 | 58 | 47 | 33 | 303 |
| Cursos / Talleres. Ikastaroak / Tailerrak | 58 | | 33 | 1 | 92 |
| TOTALES. OSOTARA | 223 | 58 | 80 | 34 | 395 |

### Actividades permanentes. Jarduera iraunkorrak

| Tipo Entidad /Tipo Actividad<br>Erakunde Mota /Jarduera Mota | Asociaciones/Colectivos<br>Elkarteak/Taldeak | Servicio Cultura<br>Kultura Zerbitzua | Servicios Ayuntamiento<br>Udaleko Zerbitzuak | Otras entidades<br>Bestelako erakundeak | TOTAL<br>TOTAL |
|---|---|---|---|---|---|
| Reuniones / Conferencias. Bilerak / Hitzaldiak | 483 | --- | --- | --- | 483 |
| Cursos / Talleres. Ikastaroak / Tailerrak | 870 | 367 | 559 | --- | 1.796 |
| Exposiciones. Erakusketak | --- | 15 | | | 15 |
| TOTALES. OSOTARA | 1.353 | 382 | 559 | --- | 2.294 |